

LOUIS VUITTON

–Ez ukitu ertzak. Lima zuzen-zuzen jarri behar duzu, horrela. Amak beti esaten dit norbaiten jatorria eskuetan igartzen dela.

Aldizkari bat erakutsi zidan, emakume esku bat ordulari bat iragartzen.

–Esku honen jabea ederra dela badakigu, edo behintzat, berezia dela, klase sozial batetik gorakoa. Batzuetan ez da besterik behar: esku zainduak, sudur arranditsu bat edo hanka finak... eta dena esanda dago.

Nivea geruza potolo batez estali genituen eskuak.

Juneren logelan zegoen Alex, mesanotxeko tiradera konpontzen. Antzina gela bakarra izan zena horma mehe batek bereizten zuen eta korridorera irten gabe pasa zitekeen batetik bestera. Sinetsi nahi nuen, mailukadekin ez zuela Juneren ahotsa entzuten.

–Orain esmalte pixka bat eta kito. Gogorra behar du haiek bezalakoa izatea, ezta?

Eskuetan putz egiten ari ginela sartu zen Alex nire logelan:

–Arropa aukeratu duzue?

–Zure zain geunden –esan zion Junek.

Bezperan etorri zitzaidan bisitan Alex, ustekabea, bere lehengusu kamioilaria Parisera zetorrela baliatuta. Etorri zenetik, bioi pertsona bakarra bagina bezala hitz egiten zigun, proportzio berean zuzentzen zizkigun begiradak, eta aditza, batez ere aditza.

Ohe gainean, galbahetik salbatutako jantziak zeuden. Guztiak Junerenak, nik anaiaren ezkontzara eraman nuen alkandora eta gona izan ezik.

–Turista paperean jarri behar dugu. Dirudunak, baina turistak. Ezin dugu koktel baterako jantzita joan, baizik eta Parisera erosketak egitera hurbildutako neska aberatsen paperean –esan nuen.

Galtzak eta bularretakoa jantzirik zebilen June logelatik bueltaka. Bular tente eta bilduentzako puntilladun horietako bat zeraman eta bizkar azpiko sakonuneak agerian uzten zizkion galtza merke bat. Junek gainetik ezer jarri aurretik galtzak erantztea gehiegizkoa iruditu zitzaidan, eta, Alexek ez bezala, begirada apartatu eta ehunak laztantzen eta arropak airean zabaltzen jarraitu nuen. Apropos ari zela banekien, inoiz ez baitzituen joko bereko titizorro eta kuleroak eramaten, ez bazen mutilen batekin edo medikuarekin hitzordua zeukalako. Nire gona probatu zuen, kreamilera askatu ere egin gabe. Ondoren galtza beltz batzuk ipini zuen.

–Horrexekin zoragarri zaude –esan zion Alexek, baina Junek beste bizpahiru modelo probatu zituen, Alexek onetsitakoaren alde egin aurretik. Anaiaren ezkontzara eraman nuen alkandora zen, galtza beltzak eta takoidun zapatak.

Txanda iritsi zitzaidanean Alex eta June begira nituen, ohe gainean eserita. June baino altuxeagoa eta sendoagoa nintzen, eta berari nire arropak ederki, baina niri bereak laburregi edo estuegi gelditzen zitzazkidan. Hala ere, ezin esan garai hartan ederra ez nintzenik. Ederra nintzen, agian ez June bezain, baina orduan uste nuena baino askoz ere gehiago. Hogeita bi urte nituen gainera.

Lehenengotik asmatu nahi nuen eta anaiaren ezkontzara eramandako gona, kamixeta beltz bat eta Juneren gabardina argi bat jantzi nituen. Oinetan, txikiegiak nituen bere bailarina tigrekarak.

—Mahukak besaurreetaraino igo, dotoreago egiten du —aholkatu zidan—. Konturatzen zara? *La classe!*

Nire edertasun nahiak errukia pizten ziola sentitzen nuen maiz.

—Oso polita zaude —esan zidan Alexek—. Biak zaudete oso politak.

Soil joatea eta osagarri gehiegi ez eramatea proposatu nuen. Edozein txikikeriak (gerriko higitu batek, kinkailazko idunekoak, binilozko poltsak) gure antzezpena hondora zezakeen.

Makillatzen ginen bitartean, Alex Juneren logelako liburuak ikuskatzen ikusi nuen. Neska hura azaletik bakarrik ezagutuz gero, izenburuek edonor epata zezaketen. Eta halakoxe aurpegia zuen Alexek jiratu zenean: miretsia, zorabiatua, urduri.

Guztiak nireak zirela esan nahi nion, nik irakurrirako guztia eramaten zuela bere gelara, lardaskatu ondoren apalean uzteko. Baina isildu egin nintzen.

Ohe gainean esertzeko agindu zidan Junek eta brotxakada leunez ilundu zizkidan masailak eta hatz txike-rrarekin gorritu ezpainak.

–Listo. Ez dakit zergatik ez zaren maizago makillatzen, ezta, Alex?

–Ahizpak ematen duzue –esan zigun Juneren logelatik nirera pasatuz.

Batzuetan bi logelak lotzen zituen atea itxi gabe egiten genuen lo, askotan.

Ez dakit zer sentitu zuen berak, baina nik nolabaiteko poza neukan, Alexen hitzek bere edertasunaren parrera ekartzen nindutelako. Oinetako mina ukatu behar izan nuen une hura ez hondatzeko.

–Urduri nago –esan zuen Junek, eta ahuldade tuntuño hark are xarmagarriagoa egiten zuen.

Alexek sorbaldak igurtzi zizkion eta azken ukitua eman zigun:

–Ezin zineten ederrago egon, benetan.

–Ni ere urduritzen hasia naiz –esan nuen.

NIRETZAT, garai hartan, hain zen garrantzikoa edertasuna. Logela, bizi nintzen etxea, apunteak gordetzeko karpeta, nire kaligrafia edo bizkotxo egosteko moldea, guztia ukitu behar zuen. Ez zuen baleko izateak balio, berezi izan behar zuen. June nire lagun onena bilakatu izana edertasun behar hura asetzeko pieza bat gehiago ez ote zen galdetzen diot neure buruari. Agian banekielako nirea koiunturala zela, banekielako nire joera gene-

tikoa gerrialdetik gizontzea eta hankak gehiegi flakatzea zela. Agian, Parisera etorri aurretik, Alex nire gurasoen etxean sartu nuelako behin, modu inkontzientean, eta gurasoen etxeko (nire etxeko) altzariekin, dekorazioarekin, aitaren albornozarekin eta sofa gaineko burusi ustelarekin zikindu zelako gure harremana. Parisera doktoregoa egitera joan izana ez zen kasualitatea.

–Sofistikatuagoa izatea espero nuen –esan zidan Alexek egun hartan–. Etxea bakarrik ez, baita gurasoak ere. Ez haserretu, ez nuen espero, besterik gabe.

Egun hartan Koldo Mitxelenara joan ginen, liburuak hartzera, ez dut oroitzen zeintzuk. Gero, han ondoko taberna batean hartu genuen kafea. Harremanaren hasiera zen eta zeloei eta maitaleei buruz hitz egitea maite genuen.

–Zuek, emakumeek, erakargarria egiten zaizuen norbait ezagutu eta txoratu egiten zarete –esan zidan Alexek.

Emakume deitu zidan lehena izan zen, gogoan dut.

–Ba, nik hemen dauden ia guztiekin egin nezake larrutan. Guretzat normala da emakumeekiko desioa sentitzea etengabe. Baina zuentzat ez, zuei gutxitan gertatzen zaizue, eta horregatik, *desioa den gertaera berezi hori* mitifikatu eta harekin larrutan egiteko beharra duzue.

Nik barre egiten nuen, bere esanek nire buruan izango zuten oihartzuna aurreikusi gabe.

PLACE d'Italie geltokitik gertu bizi ginen, Junek ikasten zuen diseinu eskolaren parean.

–Nola jarri zarete harremanetan mafia txinatarrarekin?

–Juneren ezagun baten bitartez. Eta japoniarrak dira, ez txinatarrak.

–Berak bi bider egin du eta bietan ongi irten zaio –esan zuen Junek.

–Orduan egin duen norbait ezagutzen duzue...

–Jakina –esan genuen.

–Japonian ez dago Louis Vuitton dendarik, baina sekulako eskaera omen dago. Hemengoak kontrabandoan saltzen dituzte, auskalo zein preziotan.

Alexek biltzeko tabakoa erretzen zuen. Tabako izpirik galdu gabe sortzen zituen zigarroak eta azkena balira bezala pizten zituen beti.

–Ilea gominaturik agertuko dira? Hegal zabaleko kapelu eta beroki luzeekin? Puruak erretzen? –gaizto aurpegia jartzen zitzaion kea kanporatzean.

–Emakume bat da gure kontaktua –argitu nuen.

–Geisha bat, agian –esan zuen Junek.

–Madame Ado deitzen omen da.

Metroan, hiru leku huts bilatu genituen. Ongi hezia izateagatik, bakartuta gelditu nintzen, eta Alex eta June elkarren parean jesarrira joan ziren, ni baino leerro batzuk aurrerago. Aurreikus nezakeen bezala, Junek barre gehiegi egin zuen, bere akats bakarra nabarmenduz: hortz txikiegiak. Ezagutu eta gutxira gustatzen ez zitzaizkiola aitortu izan ez balit, fineziaren ikurtzat nituzkeenak.

–Orain tira –esan zidan, esanez bezala, “hortzak ere ederrak banitu okaztagarriki eder nintzateke”–, baina irudika nazazu amonaxo bat eginda.

Eta xagutxo batek bezala marruskatu zuen airea.

Agian iritsi zen simil hura bere kontra erabiltzeko garaia. Alexi esatekoa, “karraskari hortzak dituela kon-turatu al zara?, zerbait gogorra jan orduko ezpaltxo bat galtzen du gaixoak; fruitu lehorrak debekatuta ditu, eta ogia, moldekoa bakarrik”.

Lehenagotik saiatua nintzen Juneren omenaren kontra egiten, bere eta bere familia osoaren jateko ohit-ura higuingarriak exajeratuz Alexen aurrean, alferrik.

Bitartean, inguruko jende oldeari sorgor, ni maite-mindu ninduenean bezain emana ikusten nuen Alex Ju-nerekin hizketan, eta June, ni maitemindu nintzenean bezain erne. Alex antigoaleko maitale bat zen. Gure be-launaldian ez zen bera bezalako inor gelditzen. Alexekin baino gehiago, Alexen maitatzeko manerarekin txundit-uta zegoen June. Banekien.

JUNEK sartu ninduen Louis Vuittonen negozio har-tan. Diru arazorik inoiz bizi izan ez duenari gustatu egiten zaio, gazte denean batez ere, dirurik ez daukala esan ahal izatea, erdi aitortzan baina ahalik eta jende gehienak entzuteko moduan. Horregatik zitzaion hain gustagarri Juneri Alex Parisera kamioi bateko kabinan etorri izana. Aita abokatua eta ama irakaslea izan ordez,

jostun baten eta autobus gidari baten alaba izan balitz, ez zegokeen hain harro.

–Erraza da. Ez garena garela antzetzu behar dugu, hori da dena.

–Eta harrapatzen bagaituzte, zer?

–Ez gaituzte harrapatuko –agindu zidan Junek–. Eta harrapatzen bagaituzte gure bilobei kontatuko diegu.

Champs-Elyséeseko Burger King batean jarri zigun hitzordua Madame Adok. Sarrera ondoko mahai batean esertzeko eskatu nion Alexi. Madame Adok hogei-ta hamar urte inguru zituen eta bakarrik zegoen izozki zuri baten aurrean, kate urrekara zuen larruzko poltsa mahai gainean. Atzerago, *yakuza* itxurako bi gizaseme, hankak zabalik. Madame Ado ingelesez mintzatu zitzaigun, trakets xamar:

–Ezagutzen duzue prozedura. Erosten duzuenaren ehuneko hamarra zuentzat izango da. Asko jota 20.000 libera gasta ditzakezue. Ez erosi berde koloreko ezertxo ere, japoniarrok ez dugu berdea maite. Krokodilo larruzko ezer ere ez esori, eta hobe gauza txiki asko, handi bakar bat baino.

*Travellers cheque* mordoxka bat atera zuen poltsatik, eta pistola bertan ote zeraman galdetu nion neure buruari.

–Bukatu bezain pronto hemen bilduko gara eta dagozkizuen portzentaia emango dizuet. Galderarik?

Nik gorde nituen txekeak eta Madame Adok izozkia jaten jarraitu zuen.

CHAMPS-Elyséeseko kantoï batean zegoen Louis Vuitton eta erakusleïho bakoitzeko objektu bakarra zeukan. Kanpotik ez zen barrukoa ikusten ahal, baina irudika zitekeen. Erotismoaren arau single bezain eraginkorra. Atean, zaintzapeko guardia afrikarrak.

–Eta orain zer egin behar dugu? –galdetu zion Junek Alexi, hain ongi zihoakion babesgabe inozoaren paperean. Hain zitzaion egoki, niri ere adoptatzeko eta bizitza zer den erakusteko gogoia ematen baitzidan nahi baino gehiagotan.

–Orain, sar zaitezte horra, eta beherapenetan bezain eroso eta erraz ibili.

–Aberats itxura dugu benetan? –jarraitu zuen Junek.

–Baina zer uste duzue dela ba jende hori? Gehienak aberats berriak dira, atzo arte kinielak egiten eta kartoi-tan hazka ibilitakoak, zuek baino kultura gutxiagoko jendea.

Alexen ondoan ez zen ezinezkorik existitzen.

–Zoazte. Beraiek baino ederragoak eta aztiagoak zarete.

–Milan Kundera irakurtzen dugula esango diogu dendariari –bukatu zuen Junek, eta musu bat eman zion masailean.

Alexek barre egin zuen, Junek niri lapurtutako txistearekin. Ez nuen esan behar baina esan egin nuen:

–Ez duzu irakurri eta.

Junek eta Alexek ez zidaten jaramonik egin. Segur aski, ez ninduten nengoena baino leku okerragoan jarri

nahi, guztion hobe beharrez, eta Alexek musu eman zidan, isil nendin akaso. Gero, dendan sartu ginen.

Sartu eta berehala, marmolezko irla beltzean, axo-lagabezia neurtuz ipinitako bospasei poltsa zeuden. Horma bateko hobi karratuetan, museoetako argiztapen bera erabilia, diru-zorro, giltzatako, gerriko eta kutxatilak. Bezeroen erdiak asiarrak ziren, beste erdia kontinentalak. Mantso mugitzen ziren eta baxu hitz egiten zuten, nekaturik baleude bezala. Aulki tapizatu batean, makulu bati helduta, agure bat zegoen, mokanes bat zoldak zipriztindutako jakaren patrikan. Biloba edo maitalea edo biak zen neska bat hurbildu zitzaion, LV inizialez hornituriko maleta batetik tiraka, eta hitzik egin beharrik gabe eskuratu zion diru-zorroa zaharrak.

Juneri eta bioi zail egiten zitzaigun gauzak ez ukitzea, eta ni eskuak ukabilduta eta azazkalak ahurretan iltzatuta ibili nintzen. Hasiera noragabe baten ondoren, goiko pisurantz egin genuen, eta han bereizi egin ginen. Belarrietan entzungailuak eta mikroak zituzten trajedun gizonak koloma grisen erliebeak ziruditen.

Junek, ostruka azalez egindako eskularru pare ubela, azazkalak konpontzeko kit bat eta larruzko bizkar-zorroa aukeratu zituen. Nik, dirua edukita ere sekula erosiko ez nituzkeen kapelak eramateko maleta, poltsa eta diru-zorroa aukeratu nituen, joko berekoak guztiak.

–Pasatu egin zara –esan zidan Junek ahapeka–. Iru-ditzen zait pasa egin zarela.

–Ez, hamaika aldiz egin dut batuketa. Ez da 240.000 pezetara iristen. Eta zu?

–Hortik, ez dakit.

–Nola ez dakizula? Zehatz jakin behar dugu.

Xuxurla egiterakoan xagu jitea azalerraten zitzaion eta nik hortz guztiak erauzteko gogoia sentitzen nuen.

–Azkenean ez duzu bibotea egin –esan zidan, nire aho gainera begiratu beharzagatik begiak okertuta.

–Ez.

–Egin egin behar zenuen. Uste nuen egina zenuela.

–Alexen etorrerarekin ahaztu egin zait.

–Ba alderantziz beharko luke, ez?

Salgai zegoen eskuzko ispilu batean begiratu nion neure buruari, mingainarekin goiko ezpain itxuragabetz. Bilo argi eta ugaria nuen ezpain ertzetan, June ezagutu arte behin ere kendu gabea.

–Goazen –esan zidan petralduta.

–Zaude lasai. Zaran gaude, beherapenetan, eta mila pezeta gastatu ditugu bion artean.

–Goazen.

Nire aurretik abiatu zen. Takoien gainean igota, ipurdia gozoki irteten zitzaion, eta berdin izan zitekeen Saudi Arabiako trafikante baten alaba, abeltzain andaluz baten emazte gaztea edota Monakoko kasino baten oinordekoa.

Jarri genituen gure erosgaiak moztadorearen gainean, eta June eta biok batera baino askoz ere ederragoa zen trajedun emakumeak bere bularren kontra hurbildu zituen. Banaka sakatu zituen prezioak azazkal nakaratuak erabilita, eta pantailan totala agertu zenean txekera atera nuen. Neskak eskumuturrekoarekin zarata atera zuen. Gero, betile opakoak kliskatu gabe, Juneri begiratu zion, ondoren niri.

–*Un moment, je vous prie.*

Telefonoz hots egin zuen:

–*Deux filles espagnoles qui veulent payer avec des voyageurs cheques. Vous êtes Espagnoles, n'est-ce pas?* –esan zuen telefonoa estaliz, adeitasuna galdu gabe.

Ezinezkoa zirudien hizkuntza deabru hartan hain azkar eta hain trebe hitz egitea.

Gizon mehar burusoil batek, mesedeka, ateraino eramán gintuen, gehiago ez saiatzeko eskatuz. Guk zergatia galdetu genion, ozenegi akaso.

–*Sécurité?* –esan zuen belarritik ateratzen zitzaion mikrotik.

Zaintzapeko guardiek gugana hurbiltzeko imintzioa egin zutenean, gizonak altoa eman zien eta, airean eskuarekin txiribueltak eginez, irtetera animatu gintuen.

Espantu txikiak eginez egin genuen alde, neska hark mostradore gaineko objektuak ume zaurituak balira bezala jasotzen zituen bitartean, ateko afrikarren bakea aztoratu gabe.

Alex banku batean zegoen jesarrita, metro batzuk haratago, *pain au chocolat* bat eskuetan:

–Zer, ezer ez?

Junek opil zati bat eskatu zion Alexi, nire gain utzita azalpenak emateko ardura. Alexek ahora hurbildu zionean, egingo nuke hatzak miazkatu zizkiola. Junek ez zuen aho beteka hitz egiten, horra beste edertasun lezio bat, eta nik ez nekien zer erantzun:

–Harrapatu egin gaituzte –erantzun nuen.

–Baina zergatik?

–Ezin dut ulertu. Agian azentuagatik...

–Ez dauka zentzurik, turista mordo bat ikusi dut sartzan, erosle guztiak ez dira frantsesak –esan zuen Alexek.

–Ez dakit zer gertatu den, nola konturatu diren.

Junek ez zuen aferari buruz txintik esan, isiltasuna zen bere zigorra.

CHAMPS-Elyséesen beti dago argi itsugarria. Egunez, etorbide zabala delako eta ez eraikinek ez zuhaitzek ez diotelako eguzkiari trabarik jartzen; gauez, urteko garai orotan, badirudielako Gabonak ez direla amaitu. Louis Vuittonetik irten ginenean, bi argien arteko tenore arraro hori zen.

Burger Kingen, patata barketa baten inguruan jarrita aurkitu genituen hiru japoniarrak, plastikozko sardexka txikiak eskuetan, bigarren aldi horretan guztiak mahai bakarraren bueltan. Alex gurekin etorri zen, nik hala eskatuta.

Ikaraturik nengoen. Guztiok geunden ikaraturik. Madame Adok goitik behera begiratuko zigula sentitzen nuen, ñabardura salatariaren bila. Gero, sutu egingo zela eta *yakuzak* xaxatuko zituela gure kontra. Pistolaren pisua senti nezakeen poltsari begiratuta.

Aldiz, galderarik egin gabe onartu zuen txekera. Osorik zegoela egiaztatu eta jaten jarraitu zuten.

–Bilobei kontatuko diegu, June, ez da hainbestera-ko –esan nion irteterakoan.

–Beharko.

Gu baino azkarrago zihoan, urrats txikiak eginez.

–Zapuztuta gelditu da –esan zidan Alexek.

–Ez, ez da hori. Zu etorri aurretik ere arraro xamar ibili da, zaude lasai. Gurasoekin zerbait. Utzi lasai.

Banekien, utziz gero, Alex June kontsolatzen saiatzeaz gain, algaraka jartzeko gai zela, eta ni han izango ez banintz bezala jarrai zezaketela, irriz, fantaseatuz, galtzada-harri baten edertasuna miretsiz. Alexen esku hartzea ebitatu behar nuen, kosta ahala kosta. Arreta desbideratu nuen:

–Sartuko al gara horra?

Sephora katea zen. Junek eta biok maite genituen lurrinak. Beste arlo askotan ez bezala, perfume kontuetan ongi bereiztuta zeuden gure gustuak. Paper bandak lurrinez blaitzen joan zitzaigun denbora. Alexek, erakusgai zegoen pote bat lapurtu zuen. Metroaren zain geundela eman zidan eta Junek ezin izan zuen haserrea ezkutatu.

–Usaina baino ederragoa du potea –aitortu nion Juneri Alex adi ez zegoen batean, gure ahizpatasuna babestu nahian.

Junek eskumuturra usaindu zidan. Eta Alexek entzuteko moduan esan zuen berari ez zitzaiola hain txarra iruditzen.

Metrora sartu ginenean erne ibili nintzen, eserleketan bikote naturalak osatu eta soberan zegoena soberan gelditu zedin.

Junek eserleku bakartu bat topatu zuen. Alexek eta biok aluminiozko barrari helduta egin genuen bidea,

zutik, geltokitik geltokira elkarrengandik gertuago, geroz eta eskuz beteago zegoen gure barrari helduta.

–Ez zaizu gustatu?

–Bai, asko. Benetan.

–Poteagatik hartu dut.

–Oso polita da.

–Zer duzu?

–Ezer ez.

Barrako esku guztiei begiratu nien, baina hatz-koskorrak gorrituta eta urratuta zituenari erreparatu nion. Nirea zen. Askatu egin nuen. Mingainarekin goiko ezpaina puztu nuen eta hatz mamiez ezpain gaineko biloa laztandu behin eta berriz.

–Ez egin hori –esan zidan Alexek–. Itsustu egiten zaitu.

Bagoiaren bukaeran Juneri behatu nion, Milan Kunderaren liburu bat zabalduta. Nirea. Bakarrik zegoenean oso serio jartzen zen, beldurgarriki polit. Begiak alde batera eta bestera mugitzen zituen, eta benetan irakurtzen ari zela iruditu zitzaidan. Izutu egin nintzen.